

Matematikak

1) Zein da lerro bakoitzaren luzera orotara ?

A lerroa : 3 cm eta 4mm-ko segmentu bat + 5cm eta 9mm-ko segmentu bat + 2 cm eta 5mm-ko segmentu bat.

B lerroa : 16 cm-ko segmentu bat + 44 mm-ko segmentu bat.

C lerroa : 13cm-ko segmentu bat, 2m eta 6cm-ko segmentu bat + 126cm-ko segmentu bat.

D lerroa : 5 cm eta 9mm-ko segmentu bat + 4 cm eta 1 mm-eko segmentu bat.

E lerroa : 6 cm eta 7mm-ko segmentu bat + 4mm-ko segmentu bat.

2) Zer perimetro du irudi bakoitzak ?

E irudia : 8 cm eta 6 mm aldeko lauki karratu bat.

F irudia : 35 cm aldeko lauki karratu bat.

G irudia : 7 cm luzeko eta 3 cm eta 5 mmzabaleko laukizuzen bat.

I irudia : 3 cm eta 5mm, 12cm, 10cm, 4cm eta 8mm, eta 25mm luzeko 5 alde dituen poligono bat.

3) Osa ezazu

32mm = cm eta mm

100 mm = 10

46cm = mm

203 mm = cm eta mm

2m = cm

1m = mm

145mm = cm eta mm

150 cm = 1..... eta 50.....

1 005..... = 1 m eta 5

Literatura

Harri salda (4. Parte)

Emaztea behi jeztera⁽¹⁾ joan zen. Jeztetik gelditu zelarrik, supazterrera⁽²⁾ itzuli zen. Bi arloetek⁽³⁾ salda guzia ikimilikiliklik irentsia⁽⁴⁾ zuten eta gainera Maienak beretzat prestatua zuen xingar puska ere. Ontsa engainatu⁽⁵⁾ zuten !

Bere baitan erran zuen : “Urde horiek engainatu naute baina orain, ene aldi ! “

Alegia deus ez, galdegin zien :

- Ez duzue ene gatusa ikusi, aments ?
- Ez !
- Beraz, ongarri⁽⁶⁾ metaren gainera joana dateke leher egitera⁽⁷⁾ !
- Zergatik leher egitera ?
- Arratoientzat prest ezarria nuen xingar puska pozoindatua⁽⁸⁾ jan duke.
- Xingar puska pozoindatua ?

Erranaldia bukatu orduko korralearen erdian zeuden biak, goitika⁽⁹⁾, tripako minez, barnean zuten guzia husten ari.

Orduz geroztik, Maienak ez zituen sekula gehiago bazter haietan ikusi.

Hiztegia :

- (1) Jezte : traire
- (2) Supazterra : cheminée
- (3) Arlote : vagabond
- (4) Ikimiliklik irentsi : dévorer
- (5) Engainatu : arnaquer
- (6) Ongarri : fumier
- (7) Leher egin : mourir
- (8) Pozoindatua : empoisoné
- (9) Goitika : vomir

Galderak :

1. Zer egin dute Manez eta Pettek :

A - Gatua atxeman dute

B - Maiena goaitatu dute

C - Salda eta xingar guzia jan dute

2. Zendako erraiten du xingarra untzi zuela engainatua izan dela ohartu

delarik :

A - Arratoiak hiltzeko

B - Manez eta Petterentzat

C - Gatuarentzat

3. Zer egiten dute Manez eta Pettek bukaeran:

A - Eskapatzen dira.

B - Maiena eskertzen dute

C - Goitika botatzen dute